


VILLA ANDINTOÑA
D MAILA

INTXAURRONDO 72



Egile eta data ezezagunak.

Deskribapena

Oinarri klasizistako barroko batetik datorren hotel frantses motakoa da. Oinplanoa karratua du, irtengunerik apenas, sarrera nagusiko ataripea eta goiko balkoia baino ez. Bolumen kubiko batez, beheko solairua, lehena eta mantsardako teilatupea dauzka, basamentu txiki batetik gora. Estilo neoklasikoa du, fatxada emokatuekin eta azpaduretan, inpostetan eta erlaitzean molduraren bat edo beste dauzkala. Mantsarda zink eta arbelez estalita dago, baina lerro zuri emokatuak ageri dira ertz, tximinia eta txapituletan. Fatxadetako launa baoak ez datoz horietako ardatzekin bat.

D mailako babes erregimen espezifiko

- 1.- Babesetik kanpo utzitako fatxadako elementuak edo zatiak: atzealdeko fatxadan erantsitako atalak.
- 2.- Fatxadako elementu edo zati iraunkorrak: emokadurazko apaindurak eta estalkia.
- 3.- Esku hartzeko murrizketa partikularrak: jasodurarik gabe.
- 4.- Nahitaezko lehengoratzak: ez.